

ATSEGINDEGI

PLAZERAREN

PLAZA




Atsegindegi, plazeraren plaza

Gazteak futbolean ari direnean lurrean eserita dagoen
 umearen miresmen begiradan
Aldagela zahar eta xumeen ur hotzak beharturiko oihu askatzailean
Hirugarren saiakeran aparkalekuan leku librea topatzean
Ostegunetan iristen den gutizi horren aurkikuntzan
Ezagunen bat-bateko topaketan
Gurasoen etengabeko kalakan
Haurren irrian
Plazera.
Edo,
Aterpearen babesa
Auto txokeen zirrara
Haize freskoaren laztana
Kafez bustiriko gosari goxo baten suertea
Garagardo berezi hori dastatzearen gozamena
Paseo lagunen elkargune izatearen poza
Hamaika istorioren itzala
Hitzak, liburuak, bizitza
Atsegindegi, plazeraren plaza

ATSEGINDEGI = PLAZERAREN PLAZA

2021/10/02

HERNANI



Atsegindegi hedonismorako lekua?

DAMIÁN PEDROSA

Grekoentzat bizitza soziala agoran (plazan) gertatzen zen nahiz eta hedonistentzat plazera zerbait indibiduala izan. Baina, nola bizi *hedone* hori —plazer hori— besteekiko hutsunearekin? Lortzeko ez da nahikoa Edipo-konplexua, Robinson Crusoeren konplexua ere behar dugu: bakoitza bere irlan iraganik eta etorkizunik gabe unean unekoarekin konformatuta, gozatzen.

Bizi garenaren kontzientzia badugu, nahikoa da... hedonista hutsa izateko, nahikoa. Orduan, nola jolastu, nola maitatu zuk bakarrik? Txikitatik ikasi genuen lagunak parkean, kalean, plazan zeudela. Horregatik elkartzeko lekuek beti ematen digute: geure burujabetzaren ezagutza, lagunak... babesa, ezustekoak, begi konplizeak eta besarkaden aukera, barrutik mugitzen gaituen plazera.

Atsegina eragin ondoan dagoenari, agoran (plazan) sartu besteekiko plazera sustatuz, horretarako gaude plazeraren plazan elkarrekin ezagutu ditugunen komunitatean, hedonismoari beste dimentsio bat emanez, Atsegindegi plazan elkar agur dezagun.

Nire prekaria kuttuna

EKHINE EIZAGIRRE

Hator nire eskura, *Courgette*,
hator laztana.
Ur goxotan
nahi haut epeldu.
Goxoki estali,
gomaz saihestu,
koban babestu.
Hire gainean
egingo dinat dantza,
hiri helduta estu.
Nik markatuko dinat pausoa,
nik erritmoa,
hago geldi, ez mugitu!
Hi haut baratzeke poza,
emadan plazera,
nire prekaria kuttuna.
Bilaka dezagun
une hau urrezko,
amortiza hazadan,
nire prekaria kuttuna,
gaur aluz sentiz
bihar koskaz irentsiz.
Hator nire barrura,
nire prekaria kuttuna.
Gaur ni naun hire baratza
bihar hi nire bazka.

Aza lore

MIKEL COLLINS

Atsegin dut plateretik darion lurrina eta
bere olatu apartsu baten itxura ere:
azalorea, aingeru baten ile kizkurra,
lurra inoiz zapaldu duen aingeruarena;
sardexkarekin hartu eta barrura doa
oliba olio berdearekin batera.

Zoriontsu nago afal ondoko tarte honetan,
herritar bat eserita, sabela beteta:
horra apenas ikusten duzuna poesian,
pobreziaren eta gosearen santutegian...

Baina gaur plazera eta atseginaren lehoiak
bularrean pausatu dit bere atzapar sendoa
eta zer egingo dut ba? Begiak itxi eta entzun
ondoko gelan Arantzaren ahotsa hizketan;
bera da azalore goxoa prestatu duena,
astelehenean berak jaso baitzuen saskian
Onddi magaleko Imanolen furgonetan.

Nonbait, norbait dabil aldapa gora aieneka,
munduko oker guztien zamak zapalduta,
eta edonon dago jendea elkarri begira
mahai huts, luze eta huts baten inguruan.

Baina kandlek argia ematen jarraitzen dute,
Axularri argia eman zioten moduan.

Tarte batean gutako bat oheratuko da
eta handik gutxira bestea. Gero gaua
eta gauaren azpitik hondoratuko gara
kilometro batzuk behera lur azpiko uretan
eskisto eta xafla arroken azpitik,
gosea eta plazer mailak baino sakonago,
lurreko eta harrizko azalore isilen barna,
ezagutzen dugun toki bakarraren muinerantz.

Maitasun-poema

ADRIENNE RICH

Hiri honetako pantailen ñirñirrean pornografia
edo zientzia-fikziozko banpiroak ageri diren aldiro,
edo zartailuz makurrarazitako soldatapeko biktimizatuak,
orduan ere oinez segitu behar guk... besterik gabe oinez
zabor euritan blaituan barna, geure auzoetako
tabloide-ankerkerietan barna.

Ulertu behar dugu ezin bereizi dugula gure bizitza
amets kerratu horietatik, metal-borborkada horretatik, lotsa horietatik,
etxe baten seigarren solairuko leihoan
arriskutsu dir-dir ari den begonia gorritik,
edo institutuko patioan baloiarekin jolasean dabiltzan
neska hankaluzeengandik.

Inork ez gaitu irudikatu. Bizi nahi dugu zuhaitzak bezala,
aire sulfurikoan distira dagiten sikomoroak bezala,
orbainez josirik baina joritsu ernatuz,
gure animalia-pasioa hirian erroturik.

Ai zer plazera

PAKO ARISTI

Ai zer plazera
ezertarako balio ez duten gauzak egitea,
dirurik emango ez duten gauzak idaztea,
bilera antzuetan egotea,
kobratuko ez ditudan kilometroak egitea
izartegiaren lilura ikuste hutsagatik.

Ai zer plazera
tabernan dauden guztiak gonbidatzea,
autopistan orduko 80 kilometrotan joatea,
auto ilaretan barre egitea,
erosketaren preziorik ez neurtzea.

Ai zer plazera
zer ordu den ez jakitea,
aukera on bat galtzea,
lan debalde egitea,
gizartearekin lotura txikienik ere ez edukitzea.

Ai zer plazera
kapitalismoari bere armekin
kontra egitea.

Plastilina armagabetua

OIHANA ARANA

“Askatasuna!”

oihu etsia, pintada maiztu bat
periferiako ainube kiratsean.

Zoriontasuna lorrezina da.
Plastilinazko poz zatitxoekin
konpontzen dira
hormigoizko murru arrailduak.

Errepikapen hutsez
eskuburdina bihurtutako
kafe hutsa esnatzeko,
infusio somniferoa lokartzeko.

Zoriontasuna lorrezina da.
Haragizko adabakiak
josten dizkiogu
ohar irakurgaitzek
gainezkatutako
agenda iskanbilatsuari.

Nago plazera
hesiaren bestaldeko
landare belarkarak bazkatzeko
lepoa alanbre artean
kateatzen duen
ardiaren antzeko ilusioarekin
ez ote dugun bizi

igande arratsaldeak bereziki.

Durango

(zatiak)

IÑIGO ASTIZ

Egun eguzkitsuegia, aukeran, azokarako,
baina badira autoak bazterretan eta barruan
hasi dira hauta-probak: liburuak eta diskoak,
ordenan aurkeztutako garun erupzioak mahaietan,
eta hots ozenak ate inguruko manifestazioetatik.
Badu bere publikoa haietariko bakoitzak.
Kritikariak gunen nagusian daude kritikatuekin,
paper trukean tarteka. Megafoniako abisuak

nabarmen egin du talka esku batean billeteak
eta bestean poltsak dituen gizonaren agur-oihuekin.
Egutegiak, pinak, kamisetak eta beherapenak,
komunak ere bai garajearena dirudien zuloan.
Prentsarentzako txokoan eskaileretan jendea, etsita,
baten eta besteren stand artean lekurik ez dagoelako
umeen jolas nahia eta zalaparta gogoa asetzeko.
Ezagun batzuk, bestela, beste ezagun batzuen gosez.

Hustu da parkina ere eta billeteen gizona badoa.
Orain kamioi batzuetan sartu dituzte liburu eta mahaiak,
eta bueltan doaz bisitariak beren helbide pribatuetara,
kale bakarreko harrizko herrietara, hutsik iluntzean,
eta salmenta era bihurriagoetara (liburu-dendetara,
eta etxe atariraino heltzen diren pakete urrietara);
udazken oste honetara, azoka astearte honetara
ekarri dituen erritualaren azal horitua atzean utzita.

Sortu zen gun e ber horretan utzi dute azoka hiltzen
bere kasa, hezurreria osoa agerian eta ahul.
Iraun dezala horrela ezkutuan, kemenaren pare,
salmenta zenbaki handien eta kritika positiboen pean;
denborak keinu zailduagoak irensten dituela jakinik ere,
izan dadila jendeak urtero berpizten duen zerbait,
denek partekatutako zerbait, antzinatek euskal literatura
existitu dadin berritzen den zerbait. Bego hor betiko.

Ahizparen laudorioa

WISLAWA SZYMBORSKA

Ahizpak ez du poemarik idazten,
eta seguraski ez du jadanik poemarik idatziko.
Amarengandik datorkio ohitura, gureak ez baitzuen poemarik idazten,
eta aitarengandik, jakina, hark ere ez baitzuen poemarik idazten.
Ahizparen aterpean seguru sentitzen dut neure burua:
ahizparen senarrak ez luke inolaz ere poemarik idatziko.
Badakit nire hitzek Adam Macedofskiren testu bat ekartzen dutela gogora,
baina etxekoen artean ez du inork poemarik idazten.
Ahizparen kaxoiek ez dute poema zaharrik barruan,
haren poltsan ez da poema idatzi berririk.
Eta bazkaltzera gonbidatzen nauenean ere,
badakit ez duela poemak irakurtzeko asmoz egiten.
Bere zopak gozo-gozoak dira eta ez dute esanahi ezkuturik.
Eta kafea ez da inoiz eskuizkribuetara erortzen.
Etxe askotan, inork ez du poemarik idazten,
baina kideren bat hasten bada, gutxitan izaten da bakarra.
Batzuetan, poesia urjauzien antzera erortzen da belaunaldiz-belaunaldi,
eta elkarrekiko sentimenduen baitan zurrunbilo arriskutsuak ditu sortzen.
Ahizpak ahozko prosa dotore samarra du
eta literatur-lana postal turistikoetan agertzen du soilik,
urtero-urtero promesa bera errepikatzen duen testu honekin:
bueltan
dena
kontatuko du,
den-dena.

Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
2021eko urriaren 2an,
Dobera elkarteak
antolatutako 1. Liburu Azokan.



HERNANIKO KALE LITERATURA

<https://hkl.eus/>

